

Sebastian Salaberria: «Gu zinemara ez ginen joaten, gurea sagardotegia zen»

Kalean da oiartzuarraren 'Sagardotegiak' liburua, Auspoa bildumako 247. alea

Sagardotegietako giroa ezagutzeko ^{antera} parada ezin hobea ematen du Sebastian Salaberriak idatzi eta Sendaro argitaletxeak Auspoa bildumaren barruan plazaratu berri duen 'Sagardotegiak' liburua. Astigarraga eta Hernaniko udalen laguntza izan du Sendaroak liburua plazaratzeko.

Juan Luis Zabala / Donostia

HIRUGARREN liburua plazaratu berri du Sebastian Salaberriak: *Sagardotegiak*. Salaberriak gazte-gaztetandik ezagutu ditu Donostia, Hernani, Astigarraga eta inguruko beste hainbat herritako sagardotegiak, eta horiekin loturiko oroitzenak bildu ditu liburuan. Salaberriaren lanen osagarri, hainbat argazki ditu liburua, Antonio Zabalak eginak gehientsuenak. Hitzaurrea eta hitzatzea ere idatzi dizkio Salaberriaren liburuari Zabalak.

Baina ez dira argazkiak, hitzaurrea eta hitzatzea Zabalak liburu honetan izan duen partaidetza bakarra. Zabalak bultzatu zuen Salaberria *Neronek tirako nizkin* eleberria idaztera (Auspoa bildumako 38. alea eta 1964ko Agora sariaren irabazlea), Zabalak apailatu zuen Salaberriaren *Nere soroko emaitzak* bertso bilduma (Auspoa bildumako 172. alea), eta *Sagardotegiak* liburua ere Zabalak bultzaturik idatzi du Salaberriak.

Salaberriak liburua idaztea amaitu zuenean, Zabala eta biak liburuari zuzenketak egiteko elkartu ziren Oiartzunen, bi egunez. Emaitzarekin pozik geratu ziren, Salaberriak azaldu digunez. «Liburu hau berorrek txukundu al du?», galdetu nion Aita Zabalari, kontatu digu Salaberriak (eta Zabalari *berorika* hitz egitearen zergatia azaltzeko tarte bat hartu du: «Hala hasi ginen eta hala segitzen dugu, gure gurasoek hala erakutsi ziguten eta»). «Ez, erantzun zidan», jarraitu du kontaketaekin Salaberriak. «Nik komak eta puntuak jarri dizkizut, Sebastian, gainerako dena zurea da. Oso ondo egin duzu». Neure artean pentsatu nuen Aita Zabalak 'oso ondo egin duzu' esateko txukun egin behar dela lana».

Hamar urte zituela, 1925ean, Errenteriako Gabiria baserrian morroi zegoen Sebastian Salaberria, eta garai hartan maiz sartu ohi zen, nagusiarekin batera, Barbotegi sagardotegian. Urte gogorak eta tristeak izan ziren haiek morroi gaztearentzat, baina sagardotegietarako zaletasuna gazterik piztu zitzaion Salaberriari. Makina bat sagardotegi ezagutuko zuen gerora, eta liburua ederki islatzen du eza-gutza oparo eta aberats hori.

«Oraindik segitzen diot nik sagardoaren gora-beherari» • Lehen adina joan ez arren, sagardotegiak ez ditu erabat utziak egun ere Salaberriak. «Egunero ez baina aldizka joaten naiz orain ere, hementxe, Hernanin. Gustukoa dut sagardoa, eta on egingen dit. Ez dut asko ere edango, baina

sagardo pixka bat gustukoa dut. Oraindik segitzen diot nik sagardoaren gora-beherari».

Sagardotegietako giroa asko aldatu dela dio, dena den, Salaberriak. «Orain dela 60 edo 70 urte emakume gutxi joaten zen sagardotegira. Gaur, berriz, gizonak hainbeste joaten dira emakumeak, eta gainera oso arte-tsua dira, zigarroa erretzen ere karabingeroak bezain txukunak».

Hizkuntzan ere izan da aldaketarik, eta gaur egun «erdara gehiegia» entzuten da sagardotegietan Salaberriaren iritziz.

Sagardotegira joan eta han egunak pasatzeko ohitura ere galdua da. «Liburuan horrelako gora-beherak agertzen dira», dio Salaberriak. «Lehen edozeinek egiten zituen horrelakoak, eta Txirritak eta horiek zer esanik ez. Horrelakoetan sagardotegikoek arrastoak egiten zizkieten kuplei, zer zor zieten apuntatzeko, ateratako txarroak, jandakoa eta abar. Askotan gero ordaintzekotan geratzen ziren, ezagunak ziren eta».

«Gure kolejoak, sagardotegiak», dio Salaberriak liburua kontrazalean jasotako Udarregi bertsolariaren esera ezagunak. Eta bertsolaritzaren habia ziren, dudarik gabe, garai batean sagardotegiak. «Gaur teatroetan eta horrelakoetan kantatzen dira bertsoak, baina orduan sagardotegiak eta tabernak izaten ziren bertsolariak biltzeko lekuak. Txirrita, haren lehengusu Saiburu, Telletxiki eta beste asko entzun ditu sagardotegietan bertsoetan Salaberriak, eta ez da horien bertsoak eta ateraldirik falta liburuan zehar.

Sebastian Salaberria: «Bertso saioak gauez izaten dira orain, eta oraindik bertsozale heldu asko gaude gustura joango ginatkeenak baina beranduegi direlako joaten ez garenak»

Nahiz eta plazan sekula kantatu gabea izan, ez da Salaberria sagardotegietan bertsoetan aritu gabea. Bertso zaharrak ez ezik, berak bat-batean asmatuak ere kantatu ohi zituen. «Xepairekin Urresti-azpin eta Urresti-goiain, Antonio Arruti *Erbia*-rekin Zarategi sagardotegian...». Ageri dira liburuan horietako batzuk ere. «Gu zinemara ez ginen joaten, sagardotegirako genuen guk joera. Han bertso zaharrak kantatzeko eskatzen zidaten lagunek, eta gero tartean igoal hasiko ginen bata besteari bertsoetan. Horrela ibili ginen gazte denboran. Baina gero lana ugaritu zitzaidan, lanpetu nintzen eta utzi egin nion kantatzeari, ez neukan as-



Sebastian Salaberria, *Sagardotegiak* liburuaren egilea.
ANDER GILLENIA

tirik eta. Gogokoa izan dut beti sagardotegiko ibilera, baina ez neukan astirik».

Bestei hamarna pezeta, Txirritari bost duro • Plazan sekula kantatu ez bazuen ere, behin kantatu izan balu bezala kobratzea egokitu zitzaion Salaberriari. «Behin Kurasaalean kantatzekoa nintzen. Aieteko bi gazte ginen saio hartara deituak, Oriamendi baserriko Joxe Leon Kalonje eta biok. Baina Joxe Leon ez zen etorri eta bakarrik ez igotzea hobe nuela

esan zidaten. Baina jaialdia amaitu zenean bertsolariekin joan nintzen Euzko Etxera bazkalatzera, eta han bi bertso kantarazi zizkidaten bazkalondan. Jorrala beste bezala eman zidaten. Hamar pezeta eman zizkidaten sobre urdin batean; Txirritari gehiago eman zioten, Txirritari bost duro».

Bertso paperetarako ere afizio ikaragarria izan zuen gaztetandik. «Diruarekin ibiltzen nintzen gaizki, eta patrikan dirurik ez nuelako bertso paperak eskuratu gabe geratzen nintzenezan sufritzen joaten nintzen, penetan», dio. Baina gehientsuenetan egiten zuen modua bertso paperak erosteko behar zituen hiru xoxak

—hamabost xentimo— eskuratzeko, eta baita erosiak ongi ikasi ere horrelakoetan.

Bertso paperak ez ezik, han eta hemen entzundako bat-bateko bertso asko eta asko ere gogoan izan ditu Salaberriak ia-ia orain-txe arte: «Bolada luzean eduki ditut gogoan, baina beste lan asko izaten da eta batzuk pixka bat ahaztu egin zaizkit», dio. «Baina tartean gogoratzen zaizkit oraindik, Xepaik 15 urte zituela artzain bati kantatu zikionak, Uztapidek apezek sotanak kentzeari buruz Añorgan kantatutakoak... Horietako batzuk eskatu egin dizkirate orain Oiartzundik, eta bilduak dauzkat, beren esplikazio laburrekin eta guzti. Aurretik esplikazio txiki bat ematea gustatzen zait, bestela ez baita askotan ulertzen bertsoaren grazia, baraurik bezala geratzen da irakurle».

Gaur egun ez du bertso saioetara joateko ohitura handirik Sebastian Salaberriak, ez gogo faltagatik ordea. Badu kexarik horren inguruan: «Bertso saioak gauez jartzen dituzte orain, eta oraindik bertsozale heldu asko gaude gustura joango ginatkeenak baina goiz erretiratu behar dugulako joaten ez garenak. Guretzat bederatzita eta erdietan edo hamarrak inguruan amaitzea komeni da, lotara garaiz joateko».

Zabalak hala eskatzen badio, berriro ere «zerbait heldu» egin beharko diola dio Salaberriak. «Bestela igoal haserratu egingo da eta», komentatu digu irribarrez.

Antonio Zabala Salaberriaren bila

OIARTZUNGO Elbitxuri baserrian jaio zen Sebastian Salaberria 1915ean, baina artean umea zela Errenteriako Sagasti baserriera aldatu behar izan zuen haren familiak, eta hamalau urte zituenetik jubilatu bitartean Donostian bizi izan da. Jubilatu zenez geroztik, berriz, Hernaniko zaharretxea du bizitoki.

«Nik Oiartzungo hizkera gutxi dut», dio Salaberriak. «Gazterik joan nintzen Donostiarra eta Donostian bizi izan naiz, Aiete auzoan, jubilatu arte. Donostiako euskara egiten dut gehienbat».

Morroi hasi zen lanean, oso gazterik, Sebastian Salaberria. Donostiako gas fabrika egin zuen lan gero, Morlans auzoan, eta ondoren Oriamendiko ur depositoan goardia izan zen.

Hamar urte zituenetik ezagutu du sagardotegien mundua, eta gaztetandik izan da bertsozalea. Baina bera bezalako beste askori bezala, Zabalak zabaldu zion liburua idazteko bidea Salaberriari. Gogoan du Salaberriak Zabala ezagutu zuen eguna. Antonio Zabalak entzuna zuen Salaberriak bertso zahar asko zituela jasoak eta haiek eskatzen joan zitzaion. «Txirrita, Pello Errota eta beste askoren bertsoak nituen jasoak», dio Salaberriak. «Gerra hasi zenean erre egin nituen asko, beldurrekin. Orduan gauza gutxi behar zen itzalera eramateko, edo txoria bezala hankaz gora botatzeko ere. Baina banituen jasoak batzuk, gaztegurik ekarriko ez zidatela iruditzen zitzaizkidanak. Eman nizkion haiek eta txukun-txukun itzuli zizkidan gero atzera denak, karpeta batean sartuta».

Baina berriro ere bisitatu zuen Zabalak Salaberria. «Gerrako istorio asko nuela esan zioten, eta haiek entzutera etorri zen. Haiek entzun eta gero esan zidan nobela bat egingo nuela tankera hartzen zidala. 'Baina nobela nola egingo dut ba nik, eskolarik ez dut eta, Don Antonio?', esan nion. 'Bai, hasi zaitez'».

Ez zen berehalakoan hasi Salaberria idazte lanean, baina Antonio Zabalak behin eta berriro esan zion hasteko. «Halaxe hasi nintzen, nobela bat egin eta saria irabaziko nuenik asko pentsatu gabe. Egiten nuena ahal nuen txukunena egiten nuen, hori bai». Idaztetik landa ere aski lan bazuen, goizeko lauretan, hiruretan eta are ordu bietan ere jaiki behar izan zuen gerrako istorio haiek idazteko. «Egunez ez nuen astirik. Dena gauez egingo da».

Horrela hasi zen Salaberria idazte lanean, eta horrela sortu zen *Neronek tirako nizkin*, Auspoa bilduman argitaratu eta 1964ko Agora saria eskuratu zuen eleberria. X